

1994

MARTXOAREN 16KO 1/1994 BOPV DEKRETUA NON ONARTZEN DEN “INSTITUTO POLITECNICO CIUDAD LABORAL DON BOSCO”-REN ONDASUN HIGIEZINEN ZESIOA OTSAILAREN 28KO 69/1994 BOPV DEKRETUA GIPUZKOAN “CIUDAD LABORAL DON BOSCO” IZENeko OHO ETA LH ZENTRU PUBLIKOAREN SORRERA AZALTZEN DUENA ERRENTERIAKO “INSTITUTO CIUDAD LABORAL DON BOSCO”, HEZIKETA SARE PUBLIKORAKO INTEGRAZIOA MEDIO, EGINDAKO ONDASUN ZESIOA AZALTZEN DUEN ESKRITURA

-1994eko IRAILAREN 29a-

Eskrituran, Iruñako Eskolako Ángel Velasco Ballesteros Idazkari jaunak azaltzen du Jesús M^a Alcain Domínguez jaunak (Gipuzkoako Aurrezki kutxaren ordezkari gisa) eta José Miguel García Gómez jaunak (Euskal Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Ondare eta Kontratazio Zuzendariak) adierazten dutela:

- Aurrezki Kutxak eta Gipuzkoa eta Donostiako Baitetxeak Ciudad Laboral Don Bosco izeneko lursailaren (59479,73 m²) titularra dela.
- Aurrezki Kutxak eta Gipuzkoa eta Donostiako Baitetxeak dohanik ematen diola Euskal Autonomi Erkidegoari aipatutako finka.

1998

- [1998-99 ikasturtea](#).- Kurtsoan zehar, eta gestio askoren ostean, eraberritze obren 2. egokitzapen fasea burutzen da (antzokiaren eraistea, Soldadura eta Eraikuntza Metalikoen tailerrentzako argi-indarra bideratzeko transformazio elektriko instalazio berriaren burutzea). Zentruko Internet gelara konektatuta dagoen zerbitzari bat duen intranet sare baten bitartez informatizazio eta komunikazio sarea aktibatzen da.

Hizkuntza Normalizazio plan bat burutzen da euskararen erabilera eta hizkuntza honetan emandako eskolak errazteko.

1999

- [1999-00 ikasturtea](#).- Kurtso honetan, eta betiko izaerarekin, IES Langaitz BHI-k kokatzen da aurretik EGB sailak hartzen zuen ezkerreko hegalean.

J. Antonio Gastelurrutia (zuzendaria), Jesús Presedo eta Jesús Amatriain Zentruan ISO 9002 prozeduren ezartzea burutzeko bileratarra joaten dira.

Motoentzako aparkalekuaren estaltzea burutzen da eta Zentru barruko aparkalekua erregulatzen da.

Automobilaren Elektromekanika pabiloi berriaren eraikuntza hasten da. Zentruan Soldadura-Kaldereria eta Eraikin Metalikoen espezialitateak sartzeko instalazio berrien montajea burutzen da.

2000

- [2000-01 ikasturtea](#).- ISO 9002 arauaren araberako Kalitate Ziurtagiria lortzen da. Zentruko gela eta biltegien antolaketa hobetzeko ekintzak burutzen dira.

Automobilaren Elektromekanika pabiloi berria hornitzen da.

Internet-intranet zentruko zerbitzariaren konexioarako zuntz optiko sarrera bat bideratzen da.

Liburutegia eraldatzen da zerbitzaria berneurtu eta espazio berrian artxibo orokorrak sartzeko.

Zentruko zuzendaritzaren hautapen prozesua burutzen da, kandidatua bakarra aurkezten delarik. J. Antonio Gastelurrutia Jauna hautatzen da Don Boscoko zuzendari gisa.

LH-ren zuzendaritza VAESA-rekin harremanetan jartzen da Audi markako gela baten muntaia burutzeko.

Gela honek Euskal Gobernuak Audi-rekin sinatzen duen Enpresa-Eskola hitzarmen bat aurrera eramateko balioko du. Uztailaren 18an lokalaren obrak eta hornitzeak amaitzen dira (frontoi estalia zena); eta Audi-Volkswagenei emandako puntako materialarekin lehen heziketa kurtsoari ekiten zaio.

2001

- [2001-02 ikasturtea](#).- ISO 9002ko prozedurak ISO 9001 arauera moldatzen dira. Plan Estrategiko bat aurrera eramateko ekintzak martxan jartzen dira.

Ez da Elizaren eraistea burutzen. Zentruko kirol gunea berritzeko Obra Plana aurkezten da (futbol zelaia eta kiroldegia); eta Pasaiaiko Futbol talde baten erabileraz gain, gimnasio eta karrozeria pabiloi berri baten eraikuntzaren proposamena burutzen da.

NTIC-ren planaren barruan Premia sistema txertatzen da, honek, zuntz optikoaren bitartez, departamentuak zentruko Internet -intranetarekin interkonektatzeko aukera ematen duelarik.

Euskara plana Soldadura-Galdaragintza eta Elektromekanika taldeetan zabaltzen da.

Elektrizitate departamentuko Miguel Salsamendi eta Nicolás Sagarzazu irakasleak, Heziketa Departamentuaren eskaeraz, legionelosis heziketa jasotzen (hozketara dorre zein berogailu sistemei legionela arazoa ekiditeko tratamenduak burutzeko).

2002

- [2002-03 ikasturtea](#).- Partzialki aske uzten dira J. Presedo eta Patxi Olaiz irakasleak ISO arauaren arabera Kalitatea bermatzeko. ISO 9001-2000ko UNE ziurtagiria lortzen da. 2003-2007 Plan Estrategikoa idazten bukatzen da.

- Elizaren eraiste obrak eta kirol guneen moldatze obrak burutzen dira.

Bideokonferentzia gela bar egiten da beharrezko material eta ordenagiluein hornituz.

Ekintzaileen garapenerako Urrats Bat proiektua hasten da.

Nicolás Sagarzazu Jauna nazio mailako ordezkari gisa izendatzen da Instalazio eta Mantenuaren Katalogo Nazionaleko Kualifikazio profesionalen eraketarako.

Zentruko ikasleen 18,32% -ak esukaraz jasotzen du heziketa.

Zamalbide (bere artxiboa D.Boscora mugituaz) eta Martuteneko (Ekipo Industrialaren mantenuaren zikloko 2. kurtsoaren eskaintza beharrezko aurrean) LH zentruak ixten dira.

Martxan jartzen da, EVE-ko energia berriztagarrien departamentuarekin elkarlanean, 43 eguzki panel fotoboltaikoen (5 Kwko potentzia eta 50m² azalera hartuz) instalazioa.

2003

- [2003-04 ikasturtea](#).- Delegaritzako Unitate Tekniko-en obren jarraipenerako asteroko bileren ostean, Eliza zaharraren eraberritze obrak eta zentruko sukalde zenaren obrak amaitu dira, gune berriak sortuz: bilera areto nagusia; seminarioak; hitzaldi aretoa; txoko-a. Obra aldi hau aprobetxatuta zentruko C eraikineko lehen solairua modifikatu da bertan zerbitzu guztiak egokitzeko (Lan boltsa; Urrats Bat; Hizkuntza normalizazioa; 'Denok Bat aldizkaria; Lan Arriskuen prebentzioa; Leonardo programa; e-Learning; GTP Administrazioari babesa. Eliza zenaren beheko aldean bideokonferentzia Aretoa eta Topaleku berria ezarri dira, eta eremu librean, Elizaren eraistearen ostean, Ekoskan programak bultzaturiko 1500 m²-ko eremu berdea; Batxilergo zein tailerretako pabiloietara iristeko eskailerak eraberritu dira.

Kirol gunearen eraberritzeak, futbol zelaiaren eta parkinarenak, Hezkuntza Administrazioari egindako deien eta kudeaketa ugariren ostean burutu dira.

Gimnasio berriaren eta karrozeriako pabiloien obrak, atzerapen nabarmena jasan ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketa arazoak medio eta bien arteko hainbat bilera eta kudeaketen ostean (azkena 2004ko Apirilaren 7an)(Diputazioa, Ordezkaritza, Errenteria eta Pasaiaiko Udalak eta Ondarea), martxan jarri dira berriz eta obren lizitazio epea 27-VII-04 bitarte ireki da, Irailan esleituak izango dira 8 hilabeteko (2005eko Ekain) burutze epearekin.

Gipuzkoako LH-ko Zuzendaritzarekin bilerak izan dira dorrearen birmoldatzea burutzeko. Kimika Orokorreko (Analisia eta Kontrola) eta Ingurugiroko Kimikaren laborategien errehabilitazioa. Automozioiko irakasleentzako bulegoen sortzea entrenatzaileen ikasgelen gunean. Automoziorako 4 ikasgelen sortze C eraikineko lehen solairuan, dorrean erabiltzen ari ziren ikasgelen libramenduarekin. Mekanikako irakasle guztiak biltzeko gela baten sortzea. C eraikineko lehen solairuko ikasleentzat Liburutegi-internet gune bakarraren sortzea.

2004

- 2004-05 ikasturtea.- Karrozeria pabiloi eta gimnasioaren eraikuntzak Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu zituen 2005eko Martxoaren 8an BOG n° 5 (-15-IV-2005). Eraberritze obrak ere eman dira: Elektronika sailean (irakasle bulego eta ikasgelak); Automatismo sailean (laborategi eta 2005-2006ko taldeen gehikuntzari aurre egiteko ikasgelak); Mekanika sailean (Laborategien gela eta Mekanika proiektua burutzeko zein Mekanika zein Produkzio Zerbitzu eta Mantenuko taldeen aldaketei aurre egiteko ikasgelak); Batxilergo sailean (ikusentzunezko gela eta teknologia laborategiaren birkokatzea); Eguzki panelen Iberdrolaren sarerako konexioak burutzen dira, erabilera erakusten duten panelen kokakazioa besterik gelditzen ez delarik.

Don Bosco-ko Heziketa Ez Arautuaren eskaintzaren aurkezpen berri bat burutu da; era berean, FCT enpresa kolaboratzaileetako langileriaren heziketa beharren analista egiten da, ondorengo heziketa akzioak erabakitzeke. Euskal Kualifikazio sistemaren Katalogo Modularra promozionatzeko Hobetuz-ek sortutako lan talde batean parte hartu da. Osalan-ek Don Bosco aintzakotzat hartu eta homologatua du eraikin langileak formatzeko Etengabeko Ikasgelaren irakasketarako, irakasle bezala Aitor Otaño egiaztatu ostean. ISO arauaren arabera Kalitatearen kudeaketan lan egiten da eta lehen EFQM memoria idazten da zilarrezko Q kalitate gorenaren saria jaso ahal izateko.

2005

- 2005-06 ikasturtea.- Dorrearen berreraiketarako obrak hasten dira. 2006ko Otsailean, 2005eko Martxoaren 8an Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Karrozeria eta Gimnasioaren obrak hasten dira. Mantenu ekintzak (hesien konponketa eta kanpoko fatxadaren margoketa; dorreko 100 leihoak ordezkatzeko eta fatxada eraberritzea; Mekanikako euri-ur zorrotan konponketa; Automozio tailerra zenaren egokiera karrozeriako taldeen erabilerarako; dorreko ikasgelen egokiera Batxillegoek erabili ahal izateko; sarrera nagusiko eskudela metalikoa hormigoizko eskudel batekin ordezkatzeko) eta hobekuntzak (sare informatikoaren zabaltzea; Zentru barruko seinalizazio hobekuntzak; bulegoetan aire egokitua instalatzea; bilera aretoan informatika sarea ipintzea) burutzen dira.

Heziketa Ez Arautuan, kalitatezko heziketa eskaintzen da Jarrantua, Okupazional eta Neurriko Kurtsoetan. Etengabeko Heziketaren beharrak detektatzeko sistema berri bat ezartzen da. Lan munduko agente ezberdinekin harremanak estutzen dira (Oarsoaldea, Lanbide...). Katalogo Modular-aren sistemaren beharrei aurre egiteko eta kualifikazio profesionalen sistemaren garapen potentzialari erantzuteko eskaintza prestatzen.

Tutoretza akziorako plan berri bat garatzen da.

Kolaborazio hitzarmen bat sinatzen da Gipuzkoako INSTAGI Instaladoreen eta Mantentzaileen Elkarre Enpresarialarekin. Gure zentruan INEM-eko Zereginetako Heziketa kurtsoak eskaintzeko OARSOALDEArekin egindako akordioa berri da. Kalitatearen alorrean, ISOren oinarriko AENOR egiaztapena mantentzen da; EFQM bikaintasun maila hobetzen jarraitzen da; eta Gunea proiektuare txertaketa burutzen da (departamentuak enpresa txikiak bailiran duten ekintzaren kudeaketa).

TKnika-rekin kolaboratzen da (LH-ren berriztapen zentrua) kudeaketa sistema berrien garapen proiektu anitzetan (EFQM, zuzendaritza heziketa, proiektu kudeaketa, hezkuntza marketing-a, ...) eta teknologia berrietan (robot bidezko soldadura, geotermia, entsaio ez-suntsitzaileak,..).

2006

-2006-07 ikasturtea.- Pabiloi berriak ekipatzen dira (Gimnasio eta Karrozeria) euren xedeak burutzeko materialez. 2006ko Azaroan inauguratu ziren Gimnasio eta Karrozeria pabiloi berriak.

Galdara areto berria martxan jartzen da, azken eraberritze prozesua 2006ko udan hasi zelarik. Zaintza eta segurtasun ekipamendu eta sistema berriak martxan jartzen dira.

Irakaskuntza ez arautuan, gure Hezkuntza Eskaintzak dituen beharrak atzemateko iritzi-ikerketa sistema burutzen da. Hezkuntza Eskaintza finkatzen da Katalogo Modularraren barruan zein kanpoan, gure eragin zonako pertsona zein enpresen beharrei erantzuteko, IEFPS DON BOSCO GLHBI-ak baimenduta dituen Familia Profesionalak erreferentzia bilakatu daitezten.

Osalan-en homologazioa berritzen da, Eraikinetako langileen heziketa burutu eta ordezkari sindikalentzako Laneko Arriskuen Prebentzioen oinarritzko kurtsoak eskainiz Etengabeko Ikasgelaren irakaskuntza burutzeko. Ruth España S.A., MAN Vehículos Industriales S.A., OIASSON Margoak s.l. (Grupo PRASA) kolaborazio hitzarmenak sinatzen dira. Kalitatearen alorrean, Guneka-ren hedatzearekin jarraitzen da, baita 2. EFQM memoriaren prestaketarekin ere.

2007

-2007-08 ikasturtea.- Karrozeria eta Gimnasioaren eraikinak ekipatzeko prozesuari amaiera ematen zaio. Segurtasun eta zaintza ekipoen instalazio berriak bukatzen dira. Informatika sarea zabaltzen da (WIFI). Heziketa ez arautuan Heziketra (Katalogo modularretik kanpo) eta Okupazionalako orduak gehitzen dira. FNR-ak sortutako baliabideak banatzeko sistema berri bat aurkezten da, besteak beste, Alorguneen inplikazioa bermatzeko.

Automozio, Soldadura, Galdaragintza eta Ekipo Industrialaren Mantenu-ko alorguneetan enpresako bisitariaren figura sortzen da, honek enpresa ezberdinetara bisitak egiten dituelarik. EFQM-ren araberako kudeaketaren gorentasun maila egin ostean, Don Boscok zilarrezko Q-a lortzen du. Azpimarratzekoa sari hau lortzeko lanean aritu diren guztien egitea; bereziki Kalitatearen Arduraduna den D. Patxi Olaiz Trecu.

Guneka modeloaren garapena bultzatzen da, bereziki, Ikasguneen alorrean.

2008

-2008-09 ikasturtea.- Zentruko ondakinen jasotzea zentralizatzeko burututako obrak amaitzen dira. Heziketa ez arautuan, Katalogo modular eta eskaintza libreari lotutako etengabeko Hezkuntza, Eskaearen araberako heziketa eta Hezkuntza okupazionalaren modalitateetan kalitatezko heziketa bat eskaintzen zaie langile, profesional, enpresa, erakunde eta langabezian egonda eskatzen dutenei. Heziketa ez arautuan modalitate guztien inguruko informazioa txertatzen da zentruko webgunean. Enpresako bisitarien bitartez, Etengabeko Heziketa baten beharrak identifikatzea bultzatzen da. Alorguneetan FNR-ko kordinatzailearen sorrera bultzatzen da. Etengabeko Heziketa, Okupazional eta lan mundukoan, HOBETUZ, LANBIDE, Eskualdeko Garapen Agentzia edota Erakundeekin (INSTAGI, AEGA, etab.) harremana edota eskumena duten agenteekin loturak estutzen dira. Kolaborazio hitzarmenak dituzten enpresa edota erakundeekin (MAN delegación norte, Mercedes Goiko Auto, Wurth, Oiasson, Distrinorte, Spanesi) heziketa ekintzak areagotzen dira.

Kalitatearen alorrean, Hobekuntza Plan batean lana egiten da: Prozesu Bitarteko Kudeaketa Sistemari txertatzeko; Hobbide modeloaren araberako autoebaluazioa burutzen du zentruak Euska Agentziak ezarritako epe barruan; eta Guneka programa ezartzen da zentruko gune guztietan.

2009

-2008-09 ikasturtea.- Ondakinen Mantenu eta Birziklatze araudia onartzen da eta Ingurugiroaren Heziketa proiektua txertatzen da printzipio ekologiko eta energia aurreztean oinarriturik.

Hezkuntza ez arautuan heziketa beharrak ikusten dira HEROBI taldearen bidez eta inguruko enpresa baten Heziketa Beharrentzako Diagnostikoa finantzaketara aurkezten da. Bizi arteko Heziketa arautuko duten oinarrien definizioa burutzeko Innobasque eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzarekin elkarlanean hasten da. Enplegurako Heziketa barneko Prozesuzko Kudeaketa Sistema berri bat sortzen da.

HOBETUZ-en eskaeran parte hartzen da eta enpresa txiki eta handi batean Heziketa Beharrentzako 2 Diagnostikoetan ere. HOBETUZ-eko kideekin batera, 'Enpresa eta Erakundeek Zerbitzu Berritzaileak' eskaintzeko lan egiten da.

Kalitatearen alorrean, Ikasburu kargua lortu nahi duten irakasleen heziketa eta eguneratzea burutzen da. Ikasguneen kudeaketa hobetzeko baliabideak ematen dira: Hartze Egutegia, Lan Plana, Ikasgunearen Gestorearen Fitxa.

SGP Prozesu Bidezko Kudeaketa Sistema txertatzen da. Zerbitzu honen ordezkariak Kalitatearen Euskal Agentziak antolatutako bilerak izaten dituzte SGP prozesuen txertatze maila gertutik jarraitzeko.

2010


-2009-10 ikasturtea.- Ingurugiro Kudeaketa bultzatzen da EKOSKAN (eta beranduago ISO 14001) ziurtagiria lortzeko ekintza ezberdinak sortuz. Zentruaren Plan Estrategiko berria onartzen da GUNEKA proiektua barneratzen hasten da zentruaren antolaketa egiturari. Irakasle taldeak (Ikasguneak) txertatzen hasten dira.

Leonardo eta Erasmus Proiektuen bitartez, ikasleen heziketaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitzen da.

2011

- 2010-11 ikasturtea.- 2008an hasitako krisi ekonomikoaren arira, gutxitze esanguratsua ematen da zentruari eskaintako orduetan: garatze proiektuei eskaintako orduak murrizten dira; talde bakoitzeko kide kopuru minimoa handitzen da; FCT-ak jarraitzeko ordu kopurura murrizten da, 5 egunetara luzatzen da baja kasuetan irakaslea ez ordezkatzeko egun kopurua; ez da langileria administratiboa ordezkatzeko 6 hilabete baino gutxiagoko baja epeetan.





1994-2010


Eusko Jaurlaritzaren Hezikuntza Sailak kudeatutako ikastetxea. Zentro publikoa.
Centro gestionado por la Consejería de Educación del G. V. Centro público.

1994
Creación del Centro Público
de ECB y FP Inst. Politécnico
C.I. Don Bosco

2000
AENOR
ER
Certificación de calidad
ISO 9001
Kualitate duntapena

2007
Q
Q de Plazo a la Calidad
en la gestión

2010
50 Aniversario
Retos para el Futuro



INSTITUTO ESPECÍFICO DE FORMACIÓN PROFESIONAL SUPERIOR
DON-MAILAKO LANBIDE HEZKETAKO BERRARIAZKO INSTITUTUA

DON BOSCO